

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2013ko ekainaren 27a. IX. urtea. 2.618. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Villabonako galdeketan ez parte hartzeko deia egin dute

Amasa-Villabonako atez atekoaren aldeko herritar talde batek Tolosaldea Txukunek deitutako galdeketa «fartsa bat» dela esan du **o5**



Atez atekoaren aldeko herritar taldearen agerraldia. IGL



MIKEL RAOJA

→ **Ilusioz gainezka.** Tolosaldeko udalek eta Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatzen duten Oporrak Bakean programaren barruan, 8 eta 12 urte bitarteko hogeita bi haur saharar etorri dira hemengo familietara. Besakada eta muxu artean jaso zituzten ilusioz beterik iritsi diren haur sahararrak. Datozen bi hilabeteak eskualdeko herrietan pasako dituzte indarrak berreskuratuz. **o6**

EAJren iritziz, Bilduk galdeketen aurrean «kultura demokratiko eza» azaleratzen du

Gipuzko Buru Batzarrek bere babesa eman die Maria Angeles Lazkano eta Egoitz Sorozabal Zizurkilgo zinegotzi jeltzaleei **o4**

Oskar Casadok irabazi du Ibarrako merkatarien logo lehiaketa

Merkatarien elkarrekin, aurrerantz, herritarrek eginiko logoa erabiliko du; elkarrekin oso gustura geratu dira lehiaketak izan duen harrerarekin **o7**

Pasaka partidak ikusteko aukera izango da Aresoko pilotalekuan

Aresoko Udalak pilota jaialdi berezia antolatu du etzirako; partidaren aurretik, pilota modalitateei buruzko hitzaldia eskainiko du Joxe Mari Mitxelenak **o7**

Umamaren proiektu berria finantzatzeko berrogei egun daude

Juantxo Zeberio eta kideek euskal gabon kanten moldaketekin osatuko dute diskoa; 'Crowdfounding' sistema aukeratu dute dirua biltzeko **o2**



Asteasuko Udala

Ekainak 27, osteguna -HAURREN EGUNA-
10:00: Jaien hasierako Haurren Txupinazioa, ondoren, Haurren Krosa eta Marrazketa lehiaketa
12:00-14:00: Haur parkea
14:00: Haurren arteko Bazkaria
15:00-17:30 Haur parkea
17:45: Karaokea haur eta gaztetxoentzat
18:00: Pelota Eskolako Txapelketako Alebiren finala, Nesken pala txapelketako finala eta Arkupeko Pelota Txapelketako Finalak. 19:00: Pala Txapelketako Finala
20:30: Sorginaren Jeitsiera, Txupinazioa eta Kalejira
22:30: Bertso Saioa
Gauerdian Batukada Kalejira

Ekainak 28, ostirala -KOADRILEN EGUNA-
14:30: Kuadrillen arteko bazkaria
18:00: Incansables Txaranga
19:30: Ikurrinaren aldeko ekitaldia
21:30: Herri afaria, ondoren DJon
Ekainak 29, larunbata -SAN PEDRO EGUNA-
10:00: Diana 11:00: Meza Nagusia, ondoren, Elizmendin, Hamaiketako, Soka Dantza eta Pelota Eskolako Txapelketako finalak
18:00: Musika jaialdia
19:00: Herriko musikarien kalejira
19:30: Esku pelota
Gauetan Rock Kontzertuak:
Lauroba + Glaucoma Sound System

EKAINAK 30 Igandea -JUBILATUEN EGUNA-
11:00etan: Meza eta ondoren herriko jubilatuentzat hamaiketako
12:30etan: Sagardo dastaketa eta Patata tortilla txapelketa
13:00etan: Herri Kirolak
14:30etan: Jubilatuen Bazkaria
18:00 Herri Kirolak
Asteasuko taldeen artean, ondoren Erromeria





Jazz laukotea eta abesbatza musika uztartzen dituen proiektua da, funtsean, Umama. HITZA

‘Crowdfunding’a, Umamaren proiektu berria finantzatzeko bidea

Euskal gabon kanten moldaketekin osatuko dute hirugarren egitasmo hau bilduko duen diskoa

Itzea Urkizu

Gero eta gehiago dira, herritarren finantziazioaz aurrera eramaten diren proiektuak; *crowdfunding*-a deritzen sistema hau aukeratu dute, Juantxo Zeberio buru den Umama proiektuko hirugarren lana argitaratzeko. Gaur irekiko dute diru laguntzak emateko epea, eta 40 egunez zabalik izango da.

2003an plazaratu zuten, lehenengoz, Umama egitasmoa,

Umama!! diskarekin, eta 2007an bigarren lana iritsi zen. Juantxo Zeberio piano jotzaile eta musikagileak sorturiko proiektua da, eta besteak beste, abesbatza eta jazz laukotea uztartuta sorturiko lana da.

Hirugarren diskoa honetarako, *Eguberri Umama-Basque Christmas Songs* titulua aukeratu du Zeberio: «Txiki-txikitatik etxean eta kalean entzun eta abestu ditudan gabon kantak hartu ditut lehengai gisa; moldaketak egin eta neronek entzun nahi nituzkeen moduan grabatzea da asmoa, zuzeneko emanaldiak ere eskainiz».

40 eguneko ‘crowdfunding’a
«Gaur egun bizi dugun egoera ikusirik, *crowdfunding* siste-

ma hautatu dugu proiektua finantzatzeko, Verkami plataformaren bidez», dio Juantxo Zeberio.

Finantziazio sistema honetan, proiektuko arduradunek nolabait saritzen dituzte egitasmoaren alde diru kopuru bat eman duten guztiak, disko, sarrera eta halakoekin. Guztira, 6.000 euro eskatzea erabaki dute, eta gaurtik hasi eta 40 egunez lagundu ahal izango da Eguberri Umama proiektua. *Crowdfunding*ean bildutakoa honako gastuetarako erabiliko dute, besteak beste: Elkar estudioen alokairua diskoa grabatu, nahastu eta masterizatzeko; soinu teknikarien soldatak; musikariak ahal den neurrian ordaindu; 1.000 diskoren kopia fisikoak nahiz diskoaren diseinua.

Zeberio zuzendariak azaldu duenez, «eskatutako kopuruak ez du egitasmo guztia finantziatuko», eta bestelako finantziazio bi-

deak ere irekitzen saiatuko dira. 40 egun hauetan abesbatza musika eta jazz uztartzen dituen lan hau diruz lagundu nahi duen edonork, www.verkami.com web ataria bisitatu beharko du, eta bertan Eguberri Umama proiektua bilatu.

Herritar orori zabalduko finantziazio sistema den arren, arduradunak bereziki gogoratu dira aurreko Umamaren diskoak gustuko dituztenekin, abesbatza nahiz jazz musika maite dutenekin, eta baita *Eguberri Umama* diskoa esku artean izan nahi luketenenekin ere.

Horren harira, eta oraindik errepertorioa behin-behinekoa den arren, dagoeneko hainbat kanturen moldaketak eta partiturak bukatu ditu Juantxo Zeberio: *Ator-Ator, Noel-Noel, Mesias Sarritan, Oi Betleem, Santus, Elurra mara-mara, Izar baten gainean, Orbelak airez aire, Aleluya eta Izar txuri-txuri bat*.

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKAINTZAK

Etxeko lanetarako. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 69 68 82 / 606 52 19 92.

ETXEBIZITZA

Alokagai. 80 m² eta 2 logela dituen etxebizitza alokatzeko aukera dago Iruan. Interesa duen edonork, 636 530 000 telefono zenbakira dei dezake informazio gehiago eskuratzeko.

→ Laburrak

Azken egunak igeriketa saioetan izena emateko

KIROLA › Tolosaldea IKTk Kirolzer-ekin igeriketa eskaintza berria antolatu du uda honetarako. Helduei begira, triatloi eta igeriketa probetan parte hartzeko nahiz estiloa hobetzeko saioak izango dira, bi hamabostaldi eta bi ordutegitan; 08:00etatik 09:00etara eta 19:00etatik 20:00etara. Gazte txoentzat Jolas Blai antolatu dute, 11:00etatik 13:00era, bi hamabostalditan. Izena kiroldegiko harreran nahiz 667 63 17 42 telefonoan eman daiteke.

Azken ostiralean giza katea eta afaria

GIZARTEA › Hilabeteko azken ostiralean egin ohi den elkarretaratzearekin batera, hilabete honetan, giza katea egingo dute Tolosan. 20:00etan hasiko da giza katea, eta horren ondoren afaria antolatu dute Oargi elkarteak. Afarirako txartelak ohiko lekuetan eros daitezke.

Gazte topaketa izango da bihar, Tolosan

GIZARTEA › Tolosako gazteen egoeraz eta beren beharraz hausnartzeko, gazte topaketa antolatu dute, bihar. Abastos eraikinean 19:00etan egin dute hitzordua, eta honako galderei erantzuten saiatuko dira bertaratuak: *Zer nahi dugu Tolosako gazteok?*, *Nola antolatzen gara?* eta *Zer falta dugu?*

Zuhaitz Zatitxuak, Tolosandblues hasteko

KULTURA › Bederatzigarren Tolosandblues hasiko da gaur, eta Soralezko Zuhaitz Zatitxuak blues band izango da gaur, Orbela tabernan, 22:30etik aurrera. Bihar, berriz, bi emanaldi izango dira jaialdiaren barruan: 22:30ean The Back Tracks izango da Euskal Herria plazan, eta 00:00etan, berriz, Naco Goñik emanaldia eskainiko du Fronton kafetegian.

Leo Harlem-en saioa, bihar, Leidorren

GIZARTEA › Leidor aretoan bakarriketa saioa izango da, bihar, Leo Harlemin. Iaz ere saioa eskaini zuen Leidor aretoan, baina aurtan Sergio Olayarekin batera izango da oholztan. *¿Qué hay de nuevo?* ikuskizuna eskainiko dute, 20:30etik aurrera. Emanaldirako sarrerak esku-ratu nahi dituenak, www.kutxa-sarrerak.net helbidean eros ditzake.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Emanaldiak auzo lokaletan nahiz kalean izango dira, aste betez. HITZA

Txupinazoak abiaraziko ditu, bihar, Urkizu auzoko San Pedro jaiak

Larunbata izango da egunik nabarmenena, eta bizilagun guztiek bazkaria izango dute auzo elkartean

I. Urkizu

San Joan sua eta Et Incarnatusen solstizio kontzertua izan dira, Urkizu auzoko San Pedro jaiak giro-

tzeko bide; jaiak, ordea, bihar hasiko dira, txupinazo eta kanpai hotsen doinura.

Urteroko moduan, ekainaren 29a izango da festetako egun handiena, eta meza nagusiaren ondoren, ume jolasak, futbol partida nahiz herri bazkaria izango dituzte, auzotarren artean.

Igandean ere egun osoko jarduerak izango dituzte, tortilla lehiaketa, sagardo dastaketa nahiz toka txapelketarekin.

↓ Urkizuko San Pedro jaiak

EKAINAK 28, OSTIRALA

- Txupinazoa eta kanpaiak San Pedro jaietako hasiera emanez.
- 21:30. III. Alurtxiki mus txapelketa, elkartean.

EKAINAK 29, LARUNBATA

- 11:00. Meza nagusia, eta ondoren hamaiketako trikitilarien batera.
- 12:00. Ume jolasak egun osoan. Arratsaldean futbol partidua, ume eta gurasoen artean.

- 14:00. Bazkaria Alurtxiki auzo elkartean, guraso eta haurrentzako.
- 21:00. Auzo afaria Alurtxiki elkartean, trikitilarekin.

EKAINAK 30, IGANDEA

- 11:00. Patata tortilla prestatzea.
- 11:30. Sagardo eta patata tortilla lehiaketa.
- 12:30. Toka txapelketa.
- 18:00. Haur jolasak.
- 18:00. Bolo txapelketa.

Mozorroren eguna izango da larunbatean

Bazkaria Zerkausian egingo dute, eta edaria izango da han; janaria norberak eraman beharko du

I. Urkizu

Inauterietan eguraldi txarra egin izanak sortu zien, Tolosako hainbat gazteri, ekainean mozorro egun bat antolatzeko ideia. Burutazio hutsetik aurrera atera da egitasmoa, eta larunbat honetan

inauteri giroa berreskuratzeko mozorro eguna izango da Tolosan.

12:00etan jarri dute hitzordua, Trianguloan, eta triki-kalejira egingo dute Alde Zaharrean barrera. Bazkaria 15:00etan izango da, Zerkausian, eta norberak eraman beharko du janaria; kupelak jarriko dituzte, ordea, eta edalontzia bertan erosi beharko da.

Bazkalostean, berriz, argazkia aterako dute eta mozorro hobere-nari saria banatuko diote bertar-tuek.

● tolosa@hitza.info

Antzerkia kalera aterako dute, hamabosgarrenez, Amarotz auzoan

Datorren astelehenean hasita, hilaren 6ra bitarte haur eta helduentzako saioak izango dira ikusgai

Itzea Urkizu

Urteroko moduan, uztailako lehen egunekin bat eginda, aurturten antolatuko dute Amarozko An-

tzerki Astea. Auzoko jaien bezperak girotzeko bide honek hamabosgarrena beteko du aurturten, eta haur nahiz helduei begirako antzezlan eta bakarrizketa saioak prestatu dituzte antolatzaileek.

Uztailaren lehenarekin hasiko da egitaraua, iluntzean, eta Amarozko auzo lokaletan eskainiko du, Pailaztana klown taldeak, *Klowntainer* izeneko saioa.

Aste osoan zeharrek emanaldietako batzuk lokaletan izango

dira, baina beste batzuk, aldiz, besteak beste haur eta gaztetxoek zuzendutakoak, kale antzerki formatuan eskainiko dituzte.

Horrela, beraz, *Klowntainer*, *Historias de Pitu-Titu*, *Doble Cita*, *Maitetasuna*, *Bazen behin lur izeneko planeta bat*, *Yo-yo bakarsaioa*, eta *May Gorostiaga... presente!!!* areto barruan eskainiko dituzte, eta gainerako lanak kalean ikusgai izango dira.

● tolosa@hitza.info

↓ Amarozko XV. Antzerki Astea, egitaraua

UZTAILAK 1, ASTELEHENA

- 20:00. Pailaztana Klown Taldea, *Klowntainer*, Amarozko auzo lokaletan.

UZTAILAK 2, ASTEARTEA

- 18:00. Ipotx Zirkolosa, *Txapitxapo*, kale ikuskizuna.
- 22:00. Carlos Perez Aradrosen, *Historias de Pitu-Titu* emanaldia, Amarozko auzo lokaletan.

UZTAILAK 3, ASTEAZKENA

- 18:00. Decopivolta, *Doble cita*, Amarozko auzo lokaletan.
- 22:00. Tic-tac, *Maitetasuna* eta *Bazen behin lur izeneko planeta bat*. Gero, Juan Mari Otazok *Yo-yo bakarsaioa* eskainiko du. Guztia Amarozko auzo lokaletan izango da.

UZTAILAK 4, OSTEGUNA

- 18:00. Bazen Behin Klown,

Maria Macozzi, kale ikuskizuna.

- 22:00. Intujai Teatro, *May Gorostiaga... presente!!!*, Amarozko auzo lokaletan.

UZTAILAK 5, OSTIRALA

- 18:30. Cia Circotito, *La risa es bella*, kale ikuskizuna.

UZTAILAK 6, LARUNBATA

- 17:00. Xabi Larrea, *Mr. Frack*, kale ikuskizuna.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Zabala sagardotegia Sagardo kaxa bat

Garagartza baserria • Aduna
Tel.: 943-69 07 74

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



2 Txindokiko itzala Bi lagunentzat bina sarrera

Larraitz • Abaltzisketa
Tel.: 943-10 43 67 / 628-94 72 53

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 Donostiako Aquariuma Bi lagunentzako bina sarrera


www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



Parte hartzeko deitu: **902-82 02 40** edo sartu tolosaldea.hitza.info helbidean ZOKZETAK atalean. Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan, Saridunak ostralean argitaratuko ditugu.

harpidedunak **TXOKOA hitza**



Ekimeneko mahalan zutik Egoitz Sorozabal, Eskulnekoan, bikarnez eta eserita, Mari Angeles Lazkano. a. 1012

Gipuzkoako EAJk Maria Angeles Lazkano eta Egoitz Sorozabal babestu ditu

Galdeketa aurrean Bilduren jarrerak «kultura demokratiko eza» azalazten duela dio EAJ alderdiak

Asier Imaz

Gipuzkoako EH Biltzirik EAJko hiru idoreen dimisio eskatu zuten berregun, Zuzirikil hondekin inguruko galdeketa, iru-
nura egin zutela argudiatu. EAJko hainbat udal ordezkari egon ziren mahalaetan, eta EH Biltzirik, Maria Lazkano, Egoitz Sorozabal eta Zorione Etxezarreta-
ren dimisioak eskatu zituzten. Lehen ikusi Zuzirikilgo EAJren zinegotiak dira.
Koalizio alderdiakari Gipuzko-
ako EAJk erantzun dio: «EAJko zinegotzi Maria Angeles Lazka-
nori eta Egoitz Sorozabali dimi-
sioa emateko eskatan ari zizkide Bildu; baina, gauza bakar baten gaitheko akusazio egin dezake, eta da udal gobernu talde baten ukazioa izan arren, egin den kon-
sultu antolatzeak dakarren lan herretan lantze izan direla. Zi-
zurkilgo herritar gehiengo zabal batek atez atekoaren aurkako be-
ren iritzia eman zezaten eman

dute beraien lana eta esorditza. Erabateko fefe onoz aritu dira, beren bizilagunen parte hartze demokratiko gusatu zedira». EAJ alderdiak azaldu dutenez, Zuzirikil 1.000 herritarrek eman dute atez atekoaren inguruan e-
ren iritzia. Datu horiek hautes-
kundeakotik alderatu dituzte jeltzalek: «2011ko udal hautes-
kundeakoto modu emalaren 7,80 da horti. Bilduk gehiengo abolu-
tua udukan, 300 boto gutxiagore-
kin kortu zaien».

Zuzirikil gertatu den arazo bakarra ondorengo izan da Gi-
puzkoako EAJrentzat: «Iruzur-
egitia leporatzen diotzen horiek beriek disonantia trupe izan da, eta egia esan, gertatuak en-
kusten du zein eserorosa egiten zaien Bilduri, egia herria beriek ordelkatzen dutena baina gehiago dela. Ez dute aitorru nahi, jendeak ez dutela onartzen in-
timidazioa, kontrola eta inposi-
zioa, ez zuzirikildarrek, ez gipuz-
koarrek ere».

Iruzurra salatzan duten bitar-
tean, hotoa emateko hautesle-
kuen sarretaren atez atekoaren aldeko taldeak jarzea leporatu diote Bilduri EAJk. «Bere iri-
zia besterik eman nahi ez duten herritarrek kizkiltzeko». Hain zu-
zen ere, ordezkariakoto de de-
gaitatoko botos horretarako era-
bili dela azaldu dute EAJk, kon-
trolatzaileak identifikatzea nahi ez niten herritarrek parte harteko».

Bildu atez atekoaren kontsul-
tuo legitimitasoa lezatu nahian da-
bela salatu dute EAJk. «Bim-
hitzia herriari hainbestean en-
tzuadako leloa, baina bihurtzen da gobernatzeko modu berri ho-
ren gehiegikeria inposizionalen aurrean herritarrek bere iritzia azaldu nahi dutenean. Konsul-
tuen aurrean bultza eta deskolifika-
zio-jarrena hortik, Bilduren kul-
tura demokratiko eza azalazten duen».

Azkenik, EAJren Gipuzko-
Buru Batzarrek bere elkartasuna adierazi nahi izan die Zuzirikilgo Maria Angeles Lazkano eta Egoitz Sorozabali zinegotzi jeltzalei. EAJk, gipuzkoarrek ere gonbidatu dituzte antolatzen di-
ren herri ekimen desberdinetan parte hartzeko, «modu librea-
n, demokratikoa eta errespetu-
zuan bere iritzia ematen segi deza-
ten».

Horrek hainbat, eker abertzale-
sarengana zuzendu dira EAJko-
kideak, «errealitateak ikusteko-
eskatuz: «Ken denaz begietatik-
azpita, nahiz eta errealtate horti-
bere gustukoak ez izan».

Gutunak

Ezkutuko galderak eta gure apustuaren berrestea: AAB Anoetan

Anoetako Udalak hondakinen galkako bilketaren inguruan marxin jarri duen atez ateko bilketa sistemaren aurrean desadostasuna auzietako herritar talde batek hartu duen erabakiak zur eta lu urti gaitu. Prentsa eta telebista bidez jakin dugu herri honetan atez ateko hondakin bilketaren aurka-
ko herri galdeketa bat egin nahi dela.

Honen aurrean egiten dugun lehen hausnarketa ondorengo da; benetan galdeketa honen atzen edukiuan dagoen galde-
ra ez da erabuste planta bal ala ez?

Anoetaren funktetik umunduz herritarren ariete beste norabi-
de batean zuzendu nahi dela argi dugu ordea. Jarrera dema-
gogik eta alderikilaren bidez hartu dute la uertzen dugu Anoeta Zero Zabor talde-
ko kideak. Planarengandua hau dela kuzi eta gaitaren muna osotasunean aztertzen duen galdera bat mahai gainean jar-
tzen ez den bitartean egiten diren eskaeri entzurgor egiteko eskatu nahi dugu gure udal ordezkariart.

Gure herriko errealitateari begirada bat bota diezagion orain. Anoetan bilketarako kubo gehienak banatu direnean (eta zenbakia handitzen doa egunetik egunera), herritarren gehiengoak ez al du sistema honen aldeko hitza egin?

Giartzertate prosesus izan den parte hartze zabal bezain aktiboko ez al du planari Anoetako Udalarentzat?

Martxan jarzten den ekimen oroi bezala, aukera bat ematen beharko zaio horti ere, eta ez ebalatu aurretik ondorioak alera eta paretik kentzen salatu dute.

Utertzintzat hartuko genituke udal honek momentu honetan atzerakako norabidea hartuko duen bertatik kuzeko. Hone-
gatik, ez gara joango bokatzera datoren ekainaren 29an eta 30ean egingo dugun herri-gal-
deketara.

Anoetako Udalari: Atez ateko sistema probatzeko prest gaudu; baina honek nola fun-
tzionatzen duen kuzitakoan gure iritzia emateko aukera izan nahi dugu. Honegatik, hemeen-
dik Nibete batzuetara herria-
ri gure iritzia emateko aukera eskaintzeko eskatzen diezugu, eta sistema hau egokia den, aditu egin behar den edo hobekuntzak behar dituen era-
baki dezagula denon artetik.

Joka dezagun garbi! • Oltze Auzin, Oltze Peñagarikano eta beste 30 anoztar.

Anoetako Udalak eskualdeko beste herrie? Ez baitugu aha-
zu behar ez gurea itasoreen erdian galdutako iria bat, jasan-
garritasunaren alde boronkan ari den komunitate bateko kide-
ak baizik.

Zein azalpen emango diegu proiektu honetan sinetsu eta parte hartu duten herritarrei? Beraz, herritarreiko, manio-
munitateko beste herriekote eta Anoetako Udalari, ezta-
baldin benetako arazotik alden-
du nahi duten jokabideak aha-
zu.

• Anoetako Zero Zabor Talde-
ko kideak.

Garbi joka dezagun

Akonaldean gure herria-
nahasmen handi xamara sor-
ten ari da hondakinen gaitaren inguruan. Ederu berri bat baino gehiago proposatu da, baina Anoetako Udalak herriko egonera artetu eta gure herria-
rentzat erudirik onena atez ateko zabor-bilketa dela eraba-
ki du. Dapengoko sistema hau ezartzeko herritarren emaitzak or har onak izan diren bizi-
tze-lasak asio igro idia, eta herri hortian zaboraren tasak jaitzi egin dira.

Bestalde, entzun ditugu atez atekoaren kontrola arazotatik ere, gehienak errotasunari edo garbitasunari lotuak.

Puntu honetan, atez atekoaz gure irizki propioa egin nahi dugu idia, honetarako, bide bakarra daukagu idia dugu: probatu egin nahi dugu. Eguneko nola funtzionatzen duen kuzita, gik erabaki nahi dugu garbia den, eroso den, eta kuzi nahi dugu ea emaitza onak lortzen diren herri mailan. Honegatik, zera adierazi nahi dugu:

Anoeta Txukun plataforma: Ez zaigu iruditzen orain denik momentu atez atekoari buruz erabakitzeo, ez baitugu den-
borarik izan nola funtzionatzen duen bertatik kuzeko. Hone-
gatik, ez gara joango bokatzera datoren ekainaren 29an eta 30ean egingo dugun herri-gal-
deketara.

Anoetako Udalari: Atez ateko sistema probatzeko prest gaudu; baina honek nola fun-
tzionatzen duen kuzitakoan gure iritzia emateko aukera izan nahi dugu. Honegatik, hemeen-
dik Nibete batzuetara herria-
ri gure iritzia emateko aukera eskaintzeko eskatzen diezugu, eta sistema hau egokia den, aditu egin behar den edo hobekuntzak behar dituen era-
baki dezagula denon artetik.

Joka dezagun garbi! • Oltze Auzin, Oltze Peñagarikano eta beste 30 anoztar.

Atez atekoaren aurkako galdeketa ez parte hartzeko eskatu diete herritarrei

Amasa-Villabonako herritar talde batek Tolosaldea Txukunek antolatu duen galdeketa «fartsa bat» dela esan du

A. Imaz Amasa-Villabona

Tolosaldea Txukunek atez ateko-
aren inguruko galdeketa antola-
tu du Amasa-Villabonara, ekain-
aren 28an eta 30ean. Herritar talde-
baitik galdeketa ez duela parte hartuko esan du. Besteak beste, «fartsa bat» dela delako: «Galdeketa

bera proposatzen den modua erab-
atzen demokratikoa da, are gehi-
ago, herriki udal gobernuak herri-
galdeketa prozedura garbi ba-
ten bidez zehaztuko modua auzi-
keria duenean».

Galdeketaaren antolatzailei ondorengo galderak lizatu dituz-
kie: «Noiz gainbegiratu dugu gal-
deketa horren emaitzak? Zein izango dira ikuskaritak? Pertsona bat bota bat edo pertsona bat hiru bota?» Zergatik izan behar dute emaitza horiek sinagarriak al-
derdi batek egiten duen galdera bat bakarra denon?».

Herritar taldeak atez ateko-
aren alde hitz egin du, «bizi-
tatek tasa handienak ematen dituen delako, eta beste dagulako aukera bat eman behar zaitza». Hondo-
kin bilketa sistema herria mar-
txan den herritarren, gatazkak amaitzeaz gain, «ekonomikoki onurak egin direla aldarrikatu dute. Tolosaldea Txukun gogor kritikatuta dute, eta «ezkutuko in-
teresa» izate leporatu diote. Honez gain, plataforma horretatik Amasa-Villabonara inongo proposamenik ez dutela egin esan dute.

Euren herrian «bestelako jarre-
na eta erudak» behar direla esan

dute herritar taldeko kideak, eg-
nura eta konfrentzato sozial bi-
latu ordez».

Honegatik, galdeketa ez par-
te hartzeko eskatu diete bizi-
tatei: «Amasa-Villabonak eteki-
zuen eskerakoto du».

Azkenik, atez atekoaren aldeko herritar taldeko kideak, iruzur eta fartsa gurtien gaitelak, Tolosal-
dea Txukun eta EAJko ardurar-
dunak ikuskaritza lanak egiteko «eskarri formal» egin diete: «La-
runtsean zein inguridan herrita-
rek izendatuta delegatu batren parte hartzea eskatzen dugu».

Hondakinen kudeaketa, osasun publikoaren arazo

Iritzia
Maitte Barandiaran
Irizar, EHko osasun eta Osasun Publikoaren Maitte Barandiaran

Azken egunetan Gipuzko-
ko hainbat herritan hoo-
dakinen kudeaketa bi-
nazio-galdeketa egiten ari dira. Gaitzen dagoen gaina da hain, baina egin dugu aharri osasun publiko-
ren arazo ere bada. Begira bestek, Aharren eta osasun publikoaren osasun publiko: «Gaitzenaren eko-
tuen bidez gaitzenaren sailheko, baita hainbat eta osasunari euste-
koar eta identifikatzen».

Osasun publikoaren inguruan hartzen diren erabakiak goberna-
ren ardurak dira, hainbat erabaki-
kito aldiaren tasentatik auzi eta konposibide onak aztertzea. Herri erabakia da, beste askoren ar-
tean, duela urte gutxi erosi publiko etan herria deklatu izana, eta go-
goratu, herri harira ez zela galdeketa izan. Erabaki harira erretza hainbat gaitzenaren bitan zuten auzi herriaren ondorengo harri-
an. Tabakoaren gertatu den beza-
lako bostakinen herrikoaren bitan hartzen diren neurriak auziaren tasentatik osarritu behar dute: beti ere, bostko konposibide gaitzak az-
tertuta osasunari inoiz eragiten dioten kontan izanda. Haregatik, kasu hau jake ez da etabakizapen; dago-
ena, frogatu dagoeneko erabite plantak lesta duela alderdik eta minbizi mota batzuetan.

Gaitzen, herri galdeketa bat egite-
keta auzi herriari informetza emateko da. Zuzi, jende asko gaitzen jantzia dagoela, baina bel-
dar nahi herriari soki ez ote den errotasuna hainbat ematen dira bizi-
tatearen sistematik bostakito.

«Borondate oneko jende asko engainatu dute»

Atez atekoaren aldeko taldeak zuzirikilgo gurtie bilketa sistema berriaren proba egiteko eskatu die

Asier Imaz

Zuzirikilgo atez atekoaren aldeko herritarrek asteburuko galdeketa-
ren bultza egin zuten atea. Alda-
baitetik, bi egun hortiko kontakizuna egin zuten, eta bes-
tetik, euren ondorioak plazaratu zituzten. Boto-degustatu «parte-
zina» da herritar taldearentzat, «Zuzirikilgo baldintza berberetan egiten baitu hurrengo lau gal-
dekak, beste iruzur handi batzen atzen eragan gogara. Tolosaldea Txukun datuak, alde bakarra-
ren datuak direla esan zuten, «iruzuraren artien dela frogatu dugun alde batenak». Herritar



Prentsaurrekoa eskari zuten, atez atez atekoaren aldeko herritarrek...

taldearen kontaketen arabera, bestearen %30 joan zen bokatzera, «hor kontan hartu behar da, herritarrek ez zirenak ere bota ematera etorri zirela. Honez-
bestez, hiru zuzirikildarrek bik gaitzenek, atez atekoari aukera bat ematea erabaki zuten galde-
keta iruzuri horretan parte har-
tzeaz inoiz egina». Gaitzen iz-
riena, herritar taldearentzat, «borondate oneko jende asko era-

bill, engainatu eta presionatu izan da».

Ondorengo harrarn, PSE-EEri erantzuteko tartea hartu zuten atez atekoaren aldeko herrita-
rek: «PSE-EEri alderatu du udal-
bik herritarren gehiengoak kasu egin beharko lukeela. Dirudien berriek ez dakite matematika kalkulatu egiten. Guk bai. Eta ondorio, gure ere gauza beira eskatzen dugu udalari, herritarren

Amasa-Villabonara «oso ondo» doa atez ateko kuboen banaketa

Herritarrek izaten ari diren erantzunarekin «gustura» daude banaketaz arduratzen ari direnak

I. Guri Lande Amasa-Villabona

Azaro hasi ziren Amasa-Villabonatan atez ateko hondakinen bilke-
ta sistemaren kuboen banatzen Mallak plazan. Udaleko kideak, Zero Zabor taldeak eta beste zenbait herritar arduratzen ari

dira banaketaz, eta «oso ondo»-
ala azaldu dute: «Gustura gaude herritarrek izaten ari diren erantzunarekin».

Lehen ordutik azaldu zuen jende eta larak sortu ziren kubok jasoteko. Hiru kubo ari dira banatzen; herrietako bi organikoak, errentat dira, marroi kolorekoak, eta bestea errefusurantz, gero kolorekoa. Organikoan biltzeko kubo txikiak erabili behar da, des-
guten diren poltskein, eta gero kubo handiari sartu behar da pols-
ta, kubo hori baita kaleko zintzilikatzen jartzeko. Ontzi ari-
n

nak biltzeko beste poltsa batzuk banatu dituzte. Beira eta papera zein kartoiak «biktatu» bidez biltzeko da Amasa-Villabonara.

Kubok jasoteko beste bi egunetan egingo dira Mallak plazan, Gaur 11 oretatik 14 oretara eta 16 oretatik 20 oretara, eta bihar 10 oretatik 14 oretara. Gaur, ondorengo kalietan bizi direnak jaso ahaliko dituzte kubok: Pilo-
tari, Aldude, Otzaki, Kale Nagusi, Kale Berria, Agnari, Thermin, Erribea eta Alzira. Bihar, aurreko bi egunetan txanda izan ez duten auzogurtiakok. Egun



Kuboen banatzen, atez atekoaren, Mallak plazan...

hausten egin dutenak, Kale Nagusiaren 27. anbrakian dagoen informazio bultza joan beharko

dute. Udaletik herritar gurtiak gonbidatu dituzte kubok jasotzera jostoko.

XEPLA

Aprobetxatu Ibarra-
ko Xepela Elkarteko bazkide
izateko aukera paregabea!

Diru sarrerarik eman gabe!

Informa zaituz 610 744 703 telefono zenbakian.

Mauka

Dastatze, ardointza eta mahastizaintza talerra Arabar eta Upetegiaren

La despensa de Araba
serenoa irakurri
«Mauka»-ren
10. edizioa 10. edizioa
10. edizioa 10. edizioa

Presioa 59€

berria

www.mauka.eu



Atzo izan zuten lehen hartu emana familiek haur sahararrekin. Ilusioz gainezka zeuden guztiak. M. IRAOLA

Atzo iritsi ziren Tolosaldera Oporrak Bakean programan parte hartuko duten haur sahararrak. 22 dira guztira aurten, eta datozen bi hilabeteetan primeran pasatzeko gogoz etorri dira.

Bi hilabete «pilak kargatzen»

Mikel Iraola Tolosa

Ilusioz kargatutako maletekin iritsi dira Aljeriako Tindouf herriaren ondoko errefuxiatuen kanpaleku bateko gazte sahararrak Tolosaldera. Bi hilabetezko oporraldiak igarotzeko gogoz datoz eskualdeko familien etxeetara. Hauek ere ilusioz gainezka dira.

Aurten, 8 eta 12 urte bitarteko 22 neska-mutilek hartuko dute parte Tolosaldeko udalek eta Tolosaldea Sahararekin elkartek antolatutako Oporrak Bakean programan, iaz baino bi gehiagok. Gehienak errepikatzaileak dira, hau da, aurreko urteetan esperientzia hau bizitu izan dute. Bi dira estreinakoz datozenak. Ibarra, Tolosa eta Amasa-Villabonan bosna haur geratuko dira, bi Leaburun, eta bana Anoeta, Lizartza, Zizurkil, Alegia eta Altzon.

Herenegun ailegatu zen gazte-txoen lehen taldea, eta atzo iritsi ziren gainontzekoak. Besarkada eta muku artean jaso zituzten familiek, pozez, ilusioz.

Lehenengo, medikura

Hemendik aurrera, disfrutatzen bi hilabete izango dituzte, baina lehen egunetan osasun azterketak egingo dituzte. Pediatra, okulista eta dentistara joango dira errebi-sioak egitera, eta arazorik balego hartu beharreko neurriak hartuko dira. Bestalde, elikadura ere zainduko da.

Programa honen helburu nagusi-entakoa bat «umeez hurrengo urterako pilak kargatzea» da. «Saharako udara oso gogorra da. Atzo esaterako, 43 gradu zeuden, eta hemen elikadura zaindu eta mediku azterketak egin ondoren, hurrengo udarara bitarte prest daudela esan daiteke», azaldu du Tolosaldea Sahararekin elkarteko kide batek.

Behin azterketa horiek eginda, familiekin egingo dituzten ekintzez gain, astean bitan edo hirutan jarduerak izango dituzte gainontzeko umeekin. Hori guztia koor-

dinatzen bi begirale ibiliko dira, bata tolosarra, eta bestea sahararra, umeekin suerta daitezkeen komunikazio arazoak ekiditeko.

Lehenik eta behin, astelehenean harrera ofiziala egingo diete eskualdeko udalek Tolosako udal- etxean. «Inguruko jai gehienetara joaten gara jolastera, eta horrez gain, mendira, hondartzara, Igeldora edo Txiki Park-era joango gara. Aurten ere, arraunean ari- tzekeo asmoa daukagu», dio Ana Trapero begiraleetako batek.

Abuztuaren 23an, agurtzeko ohiko festa egingo dute Tolosan,

eta 25 eta 26an itzuliko dira euren jaioterrira.

Krisiaren eragina nabaria da

2000. urteaz geroztik antolatu ohi da programa hau, eta antolatzaileek krisiaren eragina «nabaria» dela azaldu dute: «Familia gu- txiagok hartzen dute parte, azken finean dirua delako udaran beste haur bat izatea etxean. Esatera- ko, duela bost urte 500 ume etor- tzen ziren Euskal Herrira. Aurten 335 izan dira». Ahal duten heine- an, ilusio berarekin horretan ja- rraituko dutela diote.



Besarkada eta muku artean jaso zituzten haurrak. M. IRAOLA



Ohiko bilkura egingo du bihar arratsaldean Leitzako udalbatzak

M. Iraola Leiza

Leitzako udalbatzak ohiko bilku- ra egingo du bihar 21:00etan udal- letzeko batzar aretoan. Hamahi- ru puntuko gai zerrenda izango dute eztabaidatzeko, tartean ho- nako hauek:

Itzairer Haur Eskola sortzeko hi- tzarmena onartzea; UE 50 unita- tea garantzeko hirigintza hitzar- mena eta birpartzelazio proiektua hasiera batez onartzea; Francisco Javier Lizarraga Zabaletaren hi- tzarmen transakzionalaren behin behineko onespina; 2012ko kontu orokorra onartzea; lan kontrata- dun finkoak funtzionario bilaka- tzeko prozedura hastea; Landa Garapena programarako diru la- guntza eskatzeko proposamena; Euskararen erabilera Leitzako azokan; Nafarroako toki entitate- en mapa egokitzeko akordio pro- posamena; Euskal Fardoaren atxikimendu eredua eta estatu- tuak onartu eta ordezkaria izen- datzea; eta LOMCE-ri ezezkoa eman eta hezkuntza sistema pro- pioa eraikitzearen aldeko mozioa aurkezteak.

Bestalde, Amasa-Villabonako udalak ezhoiko bilkura egingo du ostiralean 11:00etan pleno areto- an, galdeketen inguruko mozio bat aztertzeko.

→ Laburrak

Maxurreneako parte hartze emaitzak atzeratu dira

LEITZA › Gaur egun Guardia Zibilaren kuartela den Maxurre- nea etxearen inguruan eginda- ko prozesu parte hartzailearen emaitzen aurkezpena atzeratu da udalarekin horrela adostuta. Gaur eta bihar Nafar Gober- nuan aztertuko dute herritar eta plataformaren mozioa, eta ondorioz, emaitzak uztailaren 2an emango dituzte arratsalde- ko zortzietan.

Urrezko aizkolarien liga hasiko du gaur Otaegik

ZIZURKIL › Gaur emango zaio hasiera Urrezko aizkolarien txal- peldunen ligari Hernanin, eta bertan izango da Joseba Otae- gi. Zizurkildarrak lehen puntua eskuratzeko saiakera egingo du Aitzol Atutxa II.aren aurka. Igandean, berriz, Ondategin (Araba) izango da jardunaldia eta Jon Rekondo leitzarrak har- tuko du parte.

Ibarrako Merkatarien elkarte Oskar Casadoren logoak identifikatuko du

Elkartetik oso gustura azaldu dira logotipo lehiaketak izan duen harrerarekin eta lanen kalitatearekin

Iñigo Terradillos Ibarra

Oskar Casadok eginiko lana erabiliko du aurrerantzean Ibarrako Merkatarien elkarteak bere irudi moduan. Izan ere, ibartarra izan da merkatarien elkarteak Ibarra-ko Udalararekin eta Tolosaldea Garatzenekin batera bultzatutako logotipo lehiaketaren irabazlea.

Hiru elementu nabarmendu ditu Casadok bere lanean: «Kolo-reak erabili ditut poltsak irudikatzen dituzten ikono batzuetan. Poltsak guztiok lotzen ditugu merkataritzarekin, eta horregatik aproposa iruditzi zitzaidan merkatarien elkartearentzat.



Lehiaketaren bultzatzaileak eta Oskar Casado irabazlea (erdian), merkatarien elkartearen irudi berriarekin. IT.

Bestalde tipografia berezia erabili dut *merkatarien elkarte* hitzei nolabaiteko seriotasuna emateko, eta *Ibarra* hitza desberdintzeko beste tipografia bat erabili



dut, piperraren elementua sartuz».

Irabazleak 500 euro dirutan eta Ibarrako elkarteak bazkide diren dendetan erosketak egiteko 250

euroko txekia jaso ditu sari moduan.

Irabazlea aukeratu duen epaimahaia Ibarrako Udaleko Ingurumena, Nekazaritza eta Merkataritzako zinegotziak eta teknikariak, Hauspoa elkartearen lehendakariak, Ibarrako Merkatarien elkartearen lehendakariak eta lehendakariordeak eta Tolosaldeko Merkataritza Dinamizatze-ko bulegoko teknikariak osatu dute. Oso gustura azaldu dira, lehiaketa «oso arrakastatsua» izan delako. Batetik, «uste baino lan gehiago» aurkeztu dituztela adierazi dute, eta bestetik, lanen kalitatea nabarmendu dute, «hausnarketa eta lanketa sakona» islatzen baitute. Horregatik, epaimahaia azaldu duenez, «lan zaila» izan du irabazlea aukeratzera. Bestalde parte hartu duten guztiak zoriondu dituzte, eta eskerrak eman dizkiete egin duten lanarengatik.

Herriko Merkataritza Biziberritzeko Planaren barruan agertzen den ondorioetako bat da elkarteak identifikatzen zuen logoa zaharkitua zegoela, eta horregatik erabaki zuten lehiaketa bidez irudi berria aukeratzeko.

Pasaka partidak jokatu dituzte etzi, Aresoko frontoian

Joxe Mari Mitxelena hitzaldia izango da 17:00etan, eta ondoren pilota partidak izango dira ikusgai

I. Terradillos Areso

Pilota jaialdi bereziaz gozatu ahal da Aresoko pilotalekuan etzi arratsaldean, San Pedro jaiaren barruan. Izan ere, garai batean pilotaleku horretan jokatzeko ziren pilota modalitateak gogoratuko dituzte, eta pasaka partidak izango dira ikusgai.

Forma berezia du Aresoko frontoiak. Oso luzea da, eta frontis txiki bat du alde batean. Herriko zaharrenekin jakingo dute, eu-

ren begiez ikusia dutelako, baina gazteek ez dakite garai batean errebotean, bote luzean nahiz pasakan aritzen zirela bertan pilotariak. Hain zuzen ere, horregatik, erabaki du Aresoko Udalak jaialdi berezi hori prestatzea: «Antzina Areson jokatzeko ziren pilota modalitateak erreberatu eta ezagutarazteko».

Pilotaren modalitate zaharrek direnak luzean jokatzeko dira, hau da, aurkariak aurrez aurre daudelarik, tenisean bezala, eta kantxa sare batez erdibituri dagoela. Lau aldaeretatik zaharrena bote luzea da, esku hutsez jokatzeko dena; errebotea eskularruz edo xisteraz jokatzeko da; laxoa, eskularruz, eta pasaka trinketearen eta eskularruz edo esku hutsez.

Bada, pilota jaialdia hasteko, euskal pilotaren modalitate zaharrek direnak inguruan hitz egingo du Joxe Mari Mitxelena, 17:00etan. Eta pilotaren inguruan zertxobait gehiago ikasi ostean, pasaka partidak ikusteko aukera izango da, 19:00etan. Lehendabizi eskularruekin jokatu dute pilotariak, eta ondoren, esku hutsez. Bote luze partidak ere jarri nahi zituen udalak, baina ez da posible izan, ez daudelako pilotari asko jokatzeko dutenak, eta une honetan txapelketak jokatzeko ari direlako. Beraz, partida horiek aurrerago egingo dituztela azaldu dute.

Pilotazaleek aukera polita dute gurean hain ezagunak ez diren pilotan jokatzeko moduak ezagutzeko etziko jaialdian.



Aresoko pilotalekua udaletxearen ondoan dago. IT.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaurdi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Amasa-Villabona



ARRAKASTAK ASTEBETE LUZATU DU

Santio jaien inguruko argazki erakusketak astebe-
tez luzatzea erabaki du Amasa-Villabonako Uda-
lak. Herriko festen historia bildu dute herriarren
laguntzarekin, ia 400 urte atzera eginez. Gurea Zi-
nemako erakusketak gelan dago: «Oso arrakasta-
tsua izaten ari da, 50 lagunetik gora pasatzen dira

egunero», adierazi dute kultura sailetik. Helburua
ahalik eta jende gehienarengana iristea denez,
uztailak 6, ostirala, arte zabalik edukitzea erabaki
dute. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik
20:30era eta larunbatean 10:30etik 13:00etara
egongo da zabalik. HITZA

Agenda

GAUR

JAIKAK

■ **Asteasu.** Herriko jaiak hasiera
emango diete. 10:00. Haurren
txupinazoa. Ondoren haurren
krosa eta marrazki lehiaketa.
12:00-14:00. Haur parkea pilo-
talekuan. 14:00. Haurren arteko
bazkaria herriko plazan. 15:00-
17:30. Haur parkea. 18:00. Haur
eta gaztetxoentzat karaokea.
18:00. Asteasuko pilota eskola-
ko txapelketako alebiren finala:
Oier Izaguirre-Lander Aizpuru.
Ondoren, nesken pala txapel-
ketako finala. 18:00. Arkupeko
pilota txapelketako finalak.
19:00. Asteasuko Aiztondo Txir-
rindulari elkarteak antolatuta-
ko pala txapelketako finala.
20:30. Sorginaren jaitsiera. Txu-
pinazoa eta kalejira. 22:30. Ber-
tso saioa, Maialen Lujanbio,
Amaia Agirre, Jon Maia eta Je-
xux Mari Irazurekin eskutik.
00:00. Batukada.

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Tolosako Eduardo
Mokoroa musika eskolan izena
emateko epea bihar bukatzen
da. 10:00etatik 13:30era eman
daiteke, eta informazio eskura-
tzeko, 943 65 15 93 telefono
zenbakira deitu daiteke.

■ **Tolosa.** Antxon Bandres Bi-
daierien Txokoa *Nola prestatu*
bidaiaitzeko bizikleta tailerra
izango da gaur, 19:00etatik
21:00etara. Francis Navarro bi-
zikleta mekanikari aditua izan-
go da bertan.
■ **Zizurkil.** Zizurkil Goiko festak
antolatze bilerak, 21:00etan,
Iriarte kultur etxean.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Tolosandblues musi-
ka jaialdiaren barruan,
22:30ean, Zuhaitz Zatitxuak
blues band, Orbela tabernan.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor zineman, *Tes-
tigos de un tiempo* filma ikusi
ahal izango da, 20:30ean.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Egunkoia eta gaukoia:
Lejeune, L. Euskal Herria kalea,
46. Telefonoa: 943 67 32 74.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Ara-
lar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen
egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

KARIBera
joan nahi al duzu?

Maukarekin
Karibera doan joan zaitezke!
Izena eman hemen eta parte hartu
Karibera astebete doan
joateko zozketan.

zozketa.mauka.eu

mauka zozketak
abentura
estetikak
jarduerak
bikotak
kingi dantza
antzerkiak

berria

**berria bekak
2013**

**Kazetaritza arloa
zortzi beka**

Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

EZAUGARRIAK:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, irailetik ekainera
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoain duen egoitza nagusian edo ordezkarietzan

Aukera ezazu,
bizi euskaraz
berria

Eskaerak aurkezteko epea: 2013-07-08 • Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean eskura daiteke

**Egin HITZAren
HARPIDEDUN**

ekainaren 1etik uztailaren 22ra arte,
ETA JASO:

Barrenetxe
www.barrenetxe.com
sasoiko
barazkien
otzara

Harpidedun egiten diren
guztien artean

**Orduñako Aisia
hotelean,
bi pertsonarentzako
asteburu baterako
egonaldia
ZOZKATUKO DUGU**

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza